

FAMILIAK, AZL-AK ETA BESTE HEZKUNTZA-ERAGILE BATZUK. DIAGNOSTIKOA

10.1. TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu zure adostasun-maila, 1etik (batere ados ez) 4ra (erabat ados).

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN				
20. Ikastetxean, ikasgelan erabiltzen diren material didaktikoetako eta testuliburu-etako ipuinetan, abestietan, irudietan eta abar agertzen diren pertsonaia femeninoen eta maskulinoen jardunak aztertzen dira (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
21. Ikastetxean, berdintasunezko erabilera ez-sexista baterako jokoak eta jostailuak erabiltzen dira (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
22. Ikasleei genero-ikuspegiarekin aztertzen erakusten zaie: jostailuen liburuxkak, koloreen erabilera, marrazki bizidunak, filmak, lanbideak eta abar.	1	2	3	4
23. Ikastetxean, agerikotasuna ematen zaie berdintasunezko mundu baten alde egiteko genero-estereotipoak apurtu dituzten pertsonari.	1	2	3	4
24. Ikastetxean, kulturen –oro har– dagoen sexismoa aztertzen da, garai eta gizarte guztietan izan diren genero-desberdintasunak ezagutzeko.	1	2	3	4
25. Nire ustez, beharrezkoa da ikastetxean genero-berdintasuna lantzea.	1	2	3	4
26. Ikasleei genero-rol eta genero-estereotipo tradizionalak erreproduzitzen ez dituzten ipuinak, kontakizunak, abestiak, irudiak, bideoak eta bestelako materialak eskaintzen zaizkie.	1	2	3	4
27. Nire ustez, egokia da ikastetxean agertzen diren jokabide edo jarrera sexistak lantzeko edo horiei buruzko gogoeta egiteko foro bat egotea.	1	2	3	4
28. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut nire semearen edo alabaren (edo ikastetxeko ikasleen) jarreretan genero-estereotipoak eta sexismoa detektatzen eta saihesten, berdintasunezko identitate bat eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izan dadin.	1	2	3	4

HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ-SEXISTA				
29. Hizkuntza ez-sexista erabiltzen dut: neskak eta emakumeak izendatzen ditut, femeninoa eta maskulinoa eta berdintasunezko adjektibazioa erabiltzen ditut (gaztelaniaz), ez dut esaera diskriminatzaile edo sexistarik erabiltzen eta abar.	1	2	3	4
30. Hezkuntza-komunitateko kideen artean hizkuntza ez-sexistaren erabilera sustatzeko orientazio garbiak daude.	1	2	3	4
31. Irakasleek kontuan hartzen dute maskulinoaren eta femeninoaren erabilera familiekiko harremanetan (gaztelaniaz).	1	2	3	4
32. Irakasleek ez dute genero-estereotipoak islatzen dituen esaerarik erabiltzen (ez eseri mutil bat bezala, ez jokatu neska batek bezala...).	1	2	3	4
33. Ikastetxean, feminitatearen eta maskulinitatearen estereotipo tradizionalak apurtzen dituzten irudiak erakusten dira (gizon bat etxeko zereginak egiten, emakume zientzialari gazte bat lanean...).	1	2	3	4
34. Ikastetxeko errotuluetan, gizonak zein emakumeak aipatzen dituzten terminoak erabiltzen dira.	1	2	3	4
35. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut nire semearen edo alabaren (edo ikastetxeko ikasleen) jarreretan hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista saihesten, berdintasunezko identitate bat eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izan dadin.	1	2	3	4

EMAKUMEEN JAKINTZA ETA EMAKUMEEN EKARPEN SOZIALA ETA HISTORIKOA TXERTATZEA				
36. Ikastetxean, hezkidetzeta-material didaktikoak erabiltzen dira.	1	2	3	4
37. Ikastetxean, gizonak eta emakumeak era orekatuan (kopuruari zein okupazioei dagokienez) agertzen dituzten testuak, ipuinak, abestiak, bideoak eta abar aukeratzen dira, genero-estereotipoak eta genero-rolak alde batera utzita.	1	2	3	4
38. Ikasgeletan, ikasleentzat motibagarriak diren esparruetako emakume ospetsu eta garrantzitsuen adibideak azaltzen dira: teknologoak, asmatzaileak, piratak, zientzialariak, idazleak, kirolariak eta abar.	1	2	3	4
39. Ikastetxean, emakumeek gizateriari egindako ekarpenei buruzko ikerketa txikiak egiten dira ikasleekin.	1	2	3	4
40. Ikasleekin honako kontzeptu hauek aztertzen dira: androzentrismoa, patriarkatua, kristalezko sabaia, lanaren sexu-banaketa, soldata-arrakala, mugimendu feminista eta sufragismoa (Bigarren Hezkuntza).	1	2	3	4
41. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut semeari edo alabari (edo ikastetxeko ikasleei) emakumeen jakintza eta emakumeen ekarpen soziala eta historikoa txertatzeko aukera helarazten, berdintasunezko identitate bat eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izan dadin	1	2	3	4

Talde txikietan, item bakoitzeko erantzunak adosten saiatuko gara. Erantzunak argudiatu ondoren, akordioak lortzen saiatuko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertzea eta ondorengo taulan sailkatzea:

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ-SEXISTA EMAKUMEEN JAKINTZA ETA EMAKUMEEN EKARPEN SOZIALA ETA HISTORIKOA TXERTATZEA		
	Zenbakiak	Arrazoiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (Puntu 1 edo 2 lortu dituzten itemak).		

Gure ikastetxean detektatutako indarguneak eta ahuleziak ikusi ondoren, hobetu behar diren eta epe laburrean lantzeko aukera gehien eskaintzen dituzten elementuak finkatuko ditugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, beraz, hobetzeko premia horiek datozen ikasturteetan lortzeko moduko helburu gisa formulatuko ditugu.

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ-SEXISTA EMAKUMEEN JAKINTZA ETA EMAKUMEEN EKARPEN SOZIALA ETA HISTORIKOA TXERTATZEA	
HOBETZEKO PREMIAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK